

B

BARREN

**“Prozesua
etenda,
partiduaren
bigarren
zatia falta da”**

Arnaldo Otegi



GUK *aek* EUSKALTEGIRA JO DUGU HONETARAKO:



1. maila



2. maila



3. maila = EGA



Osakidetzarako perfila

"Por medio del euskara quiero conocer mejor el lugar y la gente de donde vivo".

✓ **MATRIKULA ERDIA
ETA BEKA SISTEMA
UDALARI ESKER.**

✓ **IZEN EMATEA
24A ARTE.**



aek



Plaza Txikia,3 - Tel.: 943 74 13 32 - elgoibar@aek.org



GUREAN BAI
Euskeraren aldeko Fokabizirik

OSTALARITZAN
IKASTAROAK

OSTALARITZAKO
LANGILENTZAKO
EUSKARA IKASTAROAK



¡Animate a aprender Euskera!

TABERNA ETA JATETXEETAKO
LANGILEAK EUSKARA IKASTEN



Berdintasuna

Elgoibarko Udalak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2008-2011 planaren zirriborroa publikoki azaldu du herritarrek ezagutu eta iritziak eman dezaten (www.elgoibar.org).

Plan hau ez da diseinatu emakumeen mesederako; guztion, gizon eta emakumeon mesederako baizik. Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna ez da arlo isolatu bat, bizitzako eremu guztietan azaltzen den osagai bat da. Pentsatu, esan, idatzi, egin... gure jardun guztietan beti isla izango du. Askotan inertziaz egiten ditugu gauzak. Zerbait esan edo egin aurretik, merezi du gogoeta bat egitea, 45 segundo baino gutxiagoko gogoeta bat.

Zergatik asumitzen dut funtzio batzuk gizonenak edo emakumeenak direla? Zergatik ez alderantziz? Txikitatik erakutsi dizkiguten rola aldatu daitezke. Denok egin dezakegu zerbait. Nahiz eta detaile txikiak izan, lantokian, ikastetxean, familian, lagunartean... detaile txiki askoren batuketak emaitza handiak lortu ditzakete. Ez pentsa besteen gauza dela, denon erantzukizuna da. Batzuk esango dute agintariak egin dezatela, horretarako daude eta. Bakoitzak jarrera aktiboa azaltzen badugu, gure ingurukoek zerbait jasoko dute gure jokabidetik, eta horrela efektu biderkakorra lortzen da. Gizarte honetan beste batzuegan ardura dugunok edo erreferente garenok, gura-

so, agintari, irakasle, kazetari... haririk eta erantzukizun handiagoa. Zaindu ditzagun, batez ere, ume eta gazteak, barneratu dezatela emakume eta gizonen aukera eta emaitza berdinak izateko eskubidea dugula.

Elgoibarko Udala bide honetan apustua egiten ari da, eta herritarren ekarpenak jasotzeko bidea ireki du. Gauza asko daude hobetu beharrek, lan asko dago egiteko... Herritarren partaidetzaren bidez proiektua denona da, ez agintariena bakarrik. Denok ez dugu berdin pentsatzen, hor dago aberastasuna. Iritzi-ugaritasun hori bateratzea da gure erronka.

Bittori Zabala



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Zergatik asumitzen dut funtzio batzuk gizonenak edo emakumeenak direla? Zergatik ez alderantziz? Txikitatik erakutsi dizkiguten rola aldatu daitezke”

BIDALI ZURE OPORRETAKO ARGAZKIAK

**Partehartzaile guztien artean
Martinea nekazal turismoan
astebukaera bat zozketatuko da.**

MARTINEA I-II-III LANDA-ETXEA

2tik 16 pertsonentzat.

Nafarroa (Donostiatik 50 km-ra)

Tel.: 610 613 157

www.terra.es/personal5/martinea



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



Ego-Toki elkarteko Anbolo loroa hil egin da

Hegaztia diseckatu eta elkartean jarriko dute betirako

Anbolo loroa hil egin da. Txomin Iribarrenek eman zuen hegaztiaren heriotzaren notizia irailaren 12an: “Hasieran ihes egin zuela iruditu zitzaidan, baina kaiolan zegoen hilda”. 52 urte inguru zituen Anbolok, eta azken aldirian osasun arazoak zituela azaldu dute Fermin Arrese eta Txomin Iribarrenek. Itsututa zegoen, gaixorik eta berbarik ere ez zuen egiten. Ego-Tokiko bazkideak konturatuta zeuden Anbolo azkenetan zegoela. Hegaztia diseckatu eta elkartean jarriko dute betirako.

Ego-Tokiko ikurra

Gineatik ekarri zuen 1957. urte inguruan Juanito Lejarzak Anbolo (“Kaixo” esan nahi du) izeneko loritoa. Ego-Tokiko ikur eta maskota bilakatu zen berehala. Elkarteak bere irudia jarri zuen sarreran, eta Mugerza Kroseko trofeoak ere loritoaren itxura hartu zuten 1998an. Paul Tergat korrikalari keniarra Anboloren lagun mina zela kontatu digute elkarteko kideek. San Frantzisko kalean pasatzen ziren heritarrek burua bueltatzen zuten askotan Anboloren kantu eta txistuei begira, eta umeek ere beti egiten zioten kasu. Ego-Toki elkartea “lorito” moduan ezagutzen dute askok.

Ez zen isilik egotekoa

Inork ez zion berba egiten erakutsi, baina Anbolo ez zen isilik egotekoa. Elkartean entzundakoak errepikatzen zituen, eta bere esaldirik gustukoena Aupa Elgoibar” izaten zen. Norbait elkartetik irteten ikusten bazuen, “¿ya has pagao?”, galdetzen zion, eta jendeari “¡borrachol!” esatea ere izugarri gustatzen zitzaion.



Paul Tergat korrikalari keniarra Anbolorekin. Lagun minak ziren.



Anbolo 1993ko argazki batean.

Zuzendaritzaren arduren artean, beste lan bat zen Anbolo zaintzea. Jaten ematea, garbitu eta gauetan balkoitik barrura sartzea izaten ziren egin beharrekoak. Pipak jaten zituen batez ere, baina haragia ere lepo gustatzen zitzaion: “Pipa mordoia dauzkagu orain biltegian”, esan digu Txomin Iribarrenek. Loroak urte asko hartzen dituzte. 80 edo ehun urtera ere iristen dira euren giroan bizi badira. Kaiola barruan bizitzeko, “nahikoa urte hartu ditu”, esan dute Ego-Tokiko bazkideek. “Jende askok uste du loro bat baino gehiago izan dugula elkartean, baina hauxe da hasieratik geneukana, elkartean inaugurazio egunean hementxe geneukan”, azaldu du Txomin Iribarrenek. Dударик gabe, Anboloren heriotzak isiltasun eta hutsune handia laga du Ego-Tokin.


Ego-Toki elkarteak 50 urte egin ditu aurten



Herriko bi koadrila 1958. urtean elkartu eta Ego-Toki elkartea sortu zuten. Urtebete lehenago sortu zen Baltasar pilotazale elkartea, eta Biar Dana ere ordurako martxan zegoen. Eurek ere soziedadea egin behar zutela erabaki zuten. Sociedad Atletica Ego-Toki jarri zioten izena. Hasierako urteetan elkarte gastronomikoa zen soilik, baina 1960. urte inguruan Mugerza Krosaren ardura hartu zuen. Urtetik urtera, atletismoko korrikalaririk onenak ekartzen ahalegintzen ziren, eta 1963an estreinakoz nazioarteko atxintxikari ekari zituzten Elgoibarre: Mamo Wolde, Marian eta Osvaldo Suarez argentinarra. Horrela jarraitu zuten makina bat urtetan, eta orain Mintxeta Atletismo taldeak dauka Krosaren ardura. Ego Toki Elkarteak 78 bazkide ditu gaur egun. Gehienak nagusiak dira, eta jendea lan gutxi egiteko prest dagoela azaldu digu Iribarren presidenteak. Emakumeak bazkide izateari buruz galdetzean, barre egin dute Arresek eta Iribarrenek: “Ez genituzke gaizki hartuko, baina eurak ez lukete nahi izango seguruenik. Soziedadean jarri eta jatea gustatzen zaie; sukaldera, gizonak!”.

ARNALDO OTEGI

“Sekula ez
dut ulertu nire
bizitza gure
herriarekin
konpromiso
politikorik gabe”



Bake prozesuan kale zerk egin zuen azaltzearekin batera, gerora begira euskal independentismoaren eta ezker aberzalearen erronkak argitu ditu Arnaldo Otegi. Gakoa Euskal Herrian bertan dagoela uste du: herriak hautatu behar du zer nahi duen. Horrez gain, Madrilen argudioak Europan oso ahulak direla adierazi du Martuteneko espetxean hamabost hilabetez preso egon den elgoibartarrak. Beste prozesu penal batzuren menpe oraindik, lanean jarraitze-ko borondatea berretsi du: berriz ere negoziazio prozesua martxan jartzeko konpromisoa duela gogoratu du. Hauxe da kartzelatik irtendakoan eskaini duen lehen elkarrizketa.

Elkarizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Bizitza politikoa pil-pilean jardun ondoren, hamabost hilabete eman dituzu kartzelan. Nola hartu duzu politikan jarduteko ezintasun hori?

Lasaitasunarekin bizi izaten da. Azken batean, termino politikoetan, kartzelara joate horrekin kanpoko bizitza hori gelditu egiten da, estresa ere galdu egiten da. Era berean, kezkarakin ikusten da kanpoan dagoen egoeraren bilakaera, baina kanpoan beste jende bat lanean ere badela jakinda.

Barruan ikasketarik egiteko aprobetxatu duzu?

Ingelesko klaseak jarraitu ditut. Han badago moja bat, urteak daramatzana klaseak ematen kartzelan, euskalduna, azpeitiarra. Aspalditik badut *asignatura pendiente* bat ingelesarekin, eta gutxienez oinarritxo bat hartu dut. Horrez gain, niretzat funtsezkoak diren gauza batzuk ikasi ditut, zuzenbidean apuntatuta.

Kartzela aldia Martutenen eman duzu eta ez Puerton, esaterako. Norbaitek pentsa lezake pribilegio egoeran izan zarela.

Euskaldunok ohitu egin gara errepresiora eta jada, adibidez, kartzela aldia zortzi urtekoa bada "gutxi" esaten dugu, eta zer esanik ez hamabost hilabetekoa baldin bada! Zergatik? Jendeak 20-25 urte daramatzalako kartzelan. Eta gauza bera gertatzen da honekin: gauden kartzelaren arabera, ondo gaudela esaten dugu. Kartzelan ondo ez dago inor, ezta zuzendaria bera ere seguraski. Hori beraiek erabakitzen dute, bakoitza non dagoen, zer egiten duen edo zer ez duen egiten. Beti erabili dute halako politika bat gure artean ezberdintasunak sortzeko, baina oso traketsa da argudioa. Azken batean, denok gaude kartzelan, eta gu poztu egiten gara norbait senideengandik oso gertu badago, eta kezkatu senideengandik oso urruti badago. Bere garaian urteak egin nituen Andaluzian. Beraiek erabakitzen dute, besterik gabe.

Udako informazioaren ostean, espero zenuen horrelako ongietorririk?

Bai. Nik espero nuen. Ez nekien hainbat jende egongo zen ala ez. Azkenean, oso sustengatua sentitu izan naiz kartzelan, jende askok idatzi dit. Negoziazio mahaitik Martutenera pasatu nintzen, Suitzako hotel batetik Martuteneko espetxera. Gobernuarekin aritu izan gara negoziazio prozesu batean. Bazegoen espektazio bat: ni ateratzen nintzenezan zer esango nuen, zer egingo nuen. Hori banekien. Espekulazio pila bat egon dira. Harritu egiten nau batzuetan bere burua abertzaleztat dutenek, adibidez, "El Mundo-k" esaten duena sinistea, badaudelako adibide nahikoa ez sinisteko, adibidez M-11n egindako guztia. Ongietorrian esan nuen eta hemen berretsi egiten dut: preso bat kartzelan den bitartean, nik konpromisoari eutsiko diot, berriro ere negoziazio prozesu bat martxan jartzeko herri honetan, ahalik eta baldintzarik onenetan.

Lizarra-Garaziren izpirituari berriz ekin behar zaio?

Lizarra-Garazik fruitu asko eman ditu, besteak beste, ikustaraztea bere garaian herri honetzako diseinatutako marko politikoa, lurralde zatiketa eta erabakitze eskubidearen ukazioa eta guzti hori krisian zegoela; baita ere behar bat zegoela herri honetan markoa aldatzeko eta aldaketa politikorako. Oso aportazio interesgarria izan zen. Konbentzitutako gutxienez independentismoak baduela eskaintza politiko sendo bat herri honi egiteko, egingarria, demokratikoa, eta herri honek nahi baldin badu estatu izatera eramango duena. Independentistok azterketa sakona egin behar dugu. European badira adibideak argiak nondik etorri daitezkeen ikusteko.

Ez da jarrera baikorregia?

Nik ez dut hala ikusten. Garbi daukat herri honen gehiengoari objektiboki interesatzen zaiola Euskal Herria estatu bat izatea, arlo sozialetik

eta arlo nazionaletik. Horrek ez du esan nahi herriak arrazoia ematen dizunik.

Herri honetan erronka bat dago, luzea izango dena: gehiengo konbentzitu araztea, estatu bat izatea dela guretzako aukerarik onena.

Madril eta Parisen jarrera itxia da erabakitze eskubide eta lurraldesunaren inguruan.

Euskaldunok baditugu arazo estrategiko eta larriak bi estatuekin. Baina etorkizuneko estrategia eraginkorren klabea hemen dago, Euskal Herrian. Nik esperientzia bat eduki dut nazioarteko begiraleekin. Han konprobatu izan dut estatuaren arrazoiak zer ahulak diren Europaren aurrean. Nire baikortasuna nire herrian dago. Euskal Herriak hautu bat egin behar du: zer egin nahi dugun, non gauden, nola egiten du -

gun...

Euskal Herria guk nahi dugun bezalakoa ez dela ulertuta, baizik eta den bezalakoa. Eta den bezalakoa izanda, aukera izugarria dauka estatua izateko, gehienbat independentistok eta ezker independentistako kideok





Plaza Handia bete egin zen irailaren 6an Arnaldo Otegi ongietorria emateko. Herritarren harrera eskertu du berak.

kapaz baldin bagara jendea konbentzitzeko. Erronka jendea konbentzitzea da, bestela ez gara joango aurrera inoiz.

“Geroko estrategia eraginkorraren klabea hemen dago, Euskal Herrian”

Bake prozesuak porrot egin zuen. Zer hausnarketa egiten duzu?

Ez nuke esango porrot egin duenik. Sinistu nahi dut eten bat egon dela, baina eten horretatik oraindik partiduaren bigarren zatia falta dela. Asko aurreratu da. Gatazkaren konponbidean klabeak zeintzuk diren oso argi daude. Klabe horietan asko aurreratu zen eta akordioak egon ziren: hor dago aurreakordioa. Gero hainbat faktore izan dira. Oraindik orain Espainiako estatuak eta gobernuak kultura demokratiko eskasa dute. PPren faktorea ere pisu handikoa izan da; ikusi behar da PPK aurrez aurre eraso egin ziola prozesuari. Nik uste dut alderdi sozialistaren barruan ere ezberdintasun nabarmenak zeudela prozesuaren inguruan. Espainiar herriak jarraitzen ditu parametro kultural eta politiko batzuk frankismotik heredatuak. Eta gero, komunikabideen jokaera oso nabarmena izan da. Eta horrek pentsarazi behar digu halako prozesu bat posible den publikoki eramatea. Pu-

blikoa egiten den momentuan hasten dira gauzak izorratzen.

Ilegalizazioak eta mahaikideen kartzeleratzeak bizi ditu ezker abertzaleak. Gatazka bide politikotatik konpontzea zailagoa da orain?

Beti izan da zaila. Ez da bakarrik ilegalizazioa, errepresio bortitza da. Nolabait ere badago intentzio bat ezker abertzalea joko politikotik kanpo uzteko. Hori da ezker abertzaleak permititu ez dezakeena. Zaila izanik ere bere lana, aurkituko ditu mekanismoak. Herri honek joko arau berriak behar ditu, eta joko arau horiek oso sinpleak dira: Hego Euskal Herriari dagokionez lau herrialdeei egokitu behar zaie; eta proiektu politiko guztiak egiterik egotea modu demokratiko eta baketsuan. Gu independentistak gara eta eskatzen dugun bakarra da herri honek independentzia hautatzen badu errespetatua izan dadila. Hori da azken batean akordioaren funtsa. Guk onartzen dugu herri honek Espainiaren bitartez, federazioaren bitartez edo konfederazioaren bitartez, eta herri honek hori erabakitzen badu, guk errespetatu egingo dugula. Era berean, herri honek independentzia aukeratzen badu, hori errespetatzea nahi dugu. Eta hori da joko araua.

Zer iritzi duzu Ibarretxeren kontsulta legeaz?

Lehenengo momentutik denok genekien non bukatuko zen, ez zuela ibilbiderik edukiko. Eta hor dago. Nire ustez badu alde positibo bat: herriari galdetze horretan dagoela gako, etorkizuna eraikitzeko. Eta nahiko nabarmen gelditu da, baita ere, estatuak zer muga jartzen dizkion horri. Nik momentu honetan EAJ-PNV nahiko galduta ikusten dut, uste dudalako ez duela proiektu bat estrate-

gikoki landua; eta horrek funtzionatu egin du azken 30 urteetan, baina EAJ-PNVk eraman duen estrategiaren krisia nahiko nabarmena da.

Eta orain zer egingo duzu?

Eutsi egingo diet konpromiso guztiei. Sekula ez dut ulertu nire bizitza gure herriarekin konpromiso politikorik gabe. Gero hori nola gauzatzen den beste gauza bat da. Kontuan hartu behar da zer baldintzatan mugitzen ari garen. Saiakera guztiak egingo ditut berriro ere Euskal Herriaren negoziazio prozesu bat izateko. Uste dut Europar laguntza bermatuta daukagula. Ez naiz ezkutatuko, baina hori izango da nire lana ezker abertzalean.

“Erronka da jendea konbentzitzea, bestela ez gara joango aurrera inoiz”

Besterik gehitu nahi?

Eskerrak Elgoibarko herriari, egindako harre-ragatik. Sentitu dut harrera oso plurala. Aukera izan dut besarkatzeko EAJ-PNVko jende asko, EAKo jende asko eta baita alderdi sozialistako batzuk. Beraz, eskerrak ere laguntza eman didaten guztiei.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ez gaituzue geldituko

Euskal Herrian egun Europan parekorik ez duen salbuespen egoera bizi dugu. Azken negoziazio prozesuan espainiar Estatuak, PSOEren bitartez eta PNVren laguntza leialarekin, 30 urte hauetan lortu ez dutena erdiesteko asmoz azken saiakera egin zuen: Euskal Herria definitiboki Espainiaren proiektuaren barruan asimilatzea. Eta horretarako ezinbestekoa zen Autodeterminazio eskubidea eta lurraldetasuna onartzen ez dituen Estatutuen erreforma hutsari Ezker Abertzaleak oniritzia ematea. Baina Ezker Abertzaleko ordezkariak argi eta garbi erantzun zieten PSOE eta PNVri erreforma huts horrek ez zuela konponduko gatazka politiko eta armatua. Proiektu politiko guztien artean erabakitzeko eskubidea onartzea eta lurralde zatiketa gainditea zirela eta direla benetako konponbidea lortzeko gakoak.

Bi alderdi horiek ezetz borobila eman zioten planteamendu honi Loiolan eta negoziazio prozesua bertan behera utzi zuten. Izan ere, PSOEko ordezkariak Ezker Abertzalekoei mehatxau egin zieten: gogor eta garesti ordainduko zutela beren

atrebimendua. Ondoren ikusi ditugu mehatxu horiek bete dituztela: atxiloketa masiboak, bahiketak eta torturak, manifestazio eskubidearen ukazioa, poliziaren bortizkeria, ilegalizazioak, eta abar. Beti ere PNVren laguntzarekin, igandean Donostia-ko manifestazioan ikusi dugun moduan.

Espainiar Estatuak apustu garbia egin du independentismoarekin amaitzeko. Negoziazio prozesuan PSOEek eta PNVk argi utzi zuten ez zeudela prest independentziaren aukera, beste aukeren artean jasotzeko akordioetan. Prozesu hori amaitu eta gero agerian utzi dute independentziaren aukerarekin amaitzeko edozein gauza egiteko prest daudela. Irail hasieran, ikasturte politikoaren hasieran, emandako azken erasoaldiaren bitartez, -EAE-ANVren ilegalizazioa zein presoekiko elkartasuna sostengatzen duten mugimenduetako kideak kartzelaratzeara-, egin duen apustu errepresiboaren tamaina erakusten digute. Independentismoarekin amaitzeko urrun iristeko prest dauden mezua bidali dio Estatu espainolak Euskal Herriari.

30 urte eta gero, espainiar Konstituzioan eta Estatutuetan oinarrituriko marko-

ak porrot egin duenean, mozerro “demokratiko” guztiak kendu dituzte, eta gure Herria asimilatzeke helburuarekin denak balio duela erakutsi dute. Eta euskal jendarteari sinestarazi nahi diote negoziazioaren biderik ez dagoela, bide bakarra politziala eta judiziala dela, abertzaleon errendizioarekin batera. Abertzaleon moralak eta itxaropena suntsitu nahi dituzte. Baina Herri honek ondo erakutsi du azken urteotan errepresiorik basatienak ez dituela lortuko bilatzen dituen helburuak. Alderantziz, abertzaleon kontra ematen duten pausu bakoitzak gero eta gehiago urruntzen gaitu Espainiatik. Zenbat eta errepresio gehiago gure herriaren kontra, ageriagoan geratzen da beren zilegitasun falta. Kolpe bakoitzarekin arrazoi gehiago ematen digute gure independentzia indar gehiagorekin desiratzeko. Une honetan marko demokratiko bat behar dugu, proiektu politiko guztiak, -independentzia barne-, defendatzea ahalbidetuko duena. Eta horretan gaude. Ez gaituzte geldiaraziko! Euskal Herria aurrera!

Elgoibarko Ezker Abertzalea

URTEURRENAK



2007ko abuztuaren 10ean hil zen **Jesus Leniz Osa** jaunaren eta 2006ko irailaren 22an hil zen **Idoia Leniz Azkarate** andrearen oroimenez meza izango da domekan, irailak 21, goizeko 11:30ean Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:




ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza | PUBLIZITATEA Leire Rubio | MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odría, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaiz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. | INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. | TIRADA 4.750 ale | LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 | ISSN 1139-1855



Ane
Odria

Aupa, Maialen!
Konturatu ere egin

gabe, iritsi da sukaldeko egutegiko orria abuztutik irailera pasatzeko ordua. Dena dela, guk oporretan jarraitzen dugu ia-ia egutegiko orria berri aldatu arte, eta, oporrak aitzakiatzat hartuta, hauetan saldu nahi digutenaz egin nahi dizut berba gaur.



Maialen
Olazabal



Kaixo, Ane!!

Egia da bai. Uda hasieran oporrei buruz amets egin genuen biok, eta gaur guretzat oraindik bukatu ez badira ere, gogoeta egitea dagokigu. Oporrak gure hitzez inguratu ditugu eta gaur hitzetan barrena bustiko ditugu.

Denok dakigun modura, modu ezberdinak daude turismoa egiteko. Batzuk bidaia-agentziatara joan eta goitik behera antolaturiko bidaia aukeratzten dute. Ez dira arduratuko herrialde horretako kultura eta txoko magikoak ezagutzeaz, esandakoa ikusi eta sinistuko dute. Beste batzuk, ordea, motxila hartu, mapa eta liburuz hornitu, eta herri berri horri ahalik eta zuku gehien aterako diote. Ezberdinak dira bi aukerak. Oporrekin bizitzako gainontzeko gauzeekin modura gertatzen da; batzuk pasiboki ematen dietena jaso eta ezkutuan egon daitekeenaz ez dute pentsatzen, ezta borrokatzen ere. Baina oraindik ere badaude saltzen den horrekin geratzen ez direnak eta urrunago joan nahi dutenak benetako egiaren bila.

“Turista garenean ere, arretaz kontsumitu beharko genuke”

Ondo dakigun moduan, ez dago Euskal Herritik atera beharrik salgai dagoenaz jabetzeko. Zoaz esaterako Nafarroan dagoen San Frantzisko Xabierren gaztelura egun pasa eta konturatu zara bai zein erraza den herri baten historiaren zatiak ezabatzeta. Konturatuko zara horrenbeste informazio ematen duten turismo bulegoko paperetan ez dagoela Xabierrek euskararekin izandako loturaren berri ematen duen ezer, konturatuko zara Xabier hau, hori eta hura izan zela, baina ez euskaltzalea. Eta konturatuko zara, azkenean, paper guzti horien atzean daudenek ez dutela oporrik hartzen gainontzekook oporretan gaudenean, nahi dutena saltzen jarraitzen dutela gure herriaren historia manipulatua salduz.


Turista garenean ere, arretaz kontsumitu beharko genuke, ez dezagula saldu nahi diguten guztia irentsi. Ez duzu uste, Maialen?

“Herri baten xarma herri hori osatzen dutenen esku ere badago”

Eta ez dugu inoiz ahaztu behar herri baten xarma herri hori osatzen dutenen esku ere badagoela. Askotan bertako jendearekin batu eta bidea irekitzen digute zoko ezkutu eta bitxiak ezagutzeko. Eta oraindik oporrez gozatzen ari garenek toki bitxi eta bereziak ezagutzen jarraituko dugu, beti ere, begiak irekita.



Elgoibarko Udala



Txankakua elkarteko dendariak Plaza Handira irtengo dira bihar, zapatua.

Zer iruditzen zaizu merkatariek euren produktuak kalera ateratzea?



Mª Jesus Estevez

61 urte, etxeandrea

Oso ondo iruditzen zait. Ni urtero joaten naiz Txankakuaren feriara. Produktuak ikusi eta gustuko zeozer badago erosi egingo dut. Eki-men ona da merkataritza txikia bultzatzeko.



Benita Ferro

54 urte, etxeandrea

Oso ondo, denda txikiei lagundu egin behar zaie. Denok irabazten dugu horrelako ekintzekin, bai dendariak eta baita erosleek ere. Ni joango naiz feriara, giro ona egoten da.



Juan Urresti

54 urte, forjaria

Ondo, produktuak erakustea garrantzitsua da. Niri denda txikietako tratua gehiago gustatzen zait. Denda handietan dena hotza da, karroa bete eta etxera inorekin hitz egin gabe.



Sonia Revert

35 urte, etxeandrea

Ondo dago. Urteren batean joan izan naiz Txankakuaren feriara produktuak ikustera, ondoren erosteko. Erosketak herrian egitea gustatzen zait, tratua pertsonalagoa da.

10^{eko}
TXIKIAN



**Mª KRUZ
INTXAUSTI**

Irakaslea

1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Plaza Handia gustatzen zait gehien. Leku lasaia eta adin guztietako jendearentzat aproposa da. Leku zatarrik ez dago Elgoibarren, azken urte-etan asko hobetu da herria.

2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Berdegunek falta zaizkiola egia da, baina apur bat kanpora irtenda, hori ere badago. Askok kexatzen da jendea. Soberan autoak daude, eta horrek ere mugatzen ditu parke eta berdeguneak.

3. Nolakoak dira elgoibartarrak?

Jatorrak. Orain dela 34 urte etorri nintzen Munitibarretik lanera eta hemen geratu nintzen! Gustatzen zait herria eta lagun asko ditut.

4. Zein da elgoibartarrak famatuena, zure ustez?

Ezagun asko dago hemen, baina Gotzon Garate aukeratuko nuke, euskalgintzan eginiko lanagatik. Pello Arrieta ere, beste maila batean.

5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, baina denok futbolariak izan nahi dugu, eta hori ezinezkoa da. Beste kirol aukera asko dago, eskubaloia esaterako. Ezin gara kexatu.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Edozein egun da ona lagun bat herrira gonbidatzeko.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Deba ibaia garbituko dute, eta arrainak biziko dira bertan, baina ez dugu errekan bainatzeko beharrik izango, eta ez dugu egingo.

8. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?

Baietz esan beharko nuke, baina euskalduntzen ari den eta jarraitu behar duen herria da. Kanpotar asko etorri ziren garai batean, eta eurak ikasi ez badute ere, euren seme-alabek bai. Bidean goaz.

9. Elgoibar nolako den galdetu dizu kanpotar batek.

Erraz egokitzeko moduko herria da. Denetariko jendea dago eta bizitzeko aproposa da.

10. Joango zinateke beste herriren batera bizi izatera?

Kapritxoz ez. Bidaiatzea gustatzen zait, eta joaten naiz ni jaio nintzen baserrira, baina gustura bizi naiz Elgoibarren.



**Ermuaranbide kaleko espaloia egiteko obran ondorioz, ingurune hori oso arrisku-
tsu dago:**

“Pozten naiz Ermuaranbide kalean espaloia egin behar dutelako. Oso beharrezkoa dela iruditzen zait. Hala ere, obrak hasi zirenetik ingurune horretan arrisku handia sortzen da. Erre-
pidea izugarri estutu dute, eta bi kotxe elkar gurutzaz-
tzeko leku askorik ez dago. Hala ere, hori ez da txar-
rena: ni egunero joaten naiz oinez San Lorentzora, eta
zona horretatik pasatzean beldurtu egiten naiz. Kotxeak
ziztu bizian ibiltzen dira, eta egunen batean ezbehar-
ren bat gertatuko da. Zeozer egin beharra dago
kotxeen abiadura murrizteko”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarzoizarra.com / 943-74 41 12



**Txalo bat Udalaritrenbide kaleko aparka-
lekuan piboteak jartzeagatik:**

“Udalak pibote batzuk ipini ditu Trenbide kaleko aparkalekuan, eta txalo bero bat merezi du. Lehen aparkalekuaren punta-puntaraino egoten ziren autoak aparkatuta, eta arrisku handia sortzen zen. Ikusmena murrizten zuten auto horiek, eta aparkaleku-
tik errotondara irtetea oso zaila zen. Piboteei esker, egoera izugarri hobetu da. Beste leku batzuetan ere horrelako zeozer egin beharko litzateke: piboteak edo apaingarriak jarri behar dira espaloi gainetan, bestela jendeak ez du ezer errespetatzen eta edozein lekutan lagatzen du autoa”.

ESKERTZA



Jose Mari Igartua Arizmendi

“Hamaika”

2008ko irailaren 10an hil zen

*Hamaika! Zuk utzitako hutsunea
denok gabiltza betetzen,
emazte eta seme-alabak,
inor ez da baztertutzen.
Zuenganako gure esker ona,
ari naitzaizu bidaltzen,
baina penak eta saminak
bihotza ez du ahaztutzen.*

- Goian bego -

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Merkatu plaza berritzeko aukerak aztertzen ari dira Udala eta merkatariak, hiru proiekturen bidez

Dendari guztiak solairu berean jartzeko aukera aztertzen ari dira

Udaberri inguruan hasi ziren Udala eta merkatu plazako dendariak etorkizunerako merkatu plaza berria diseinatzen. Plazako postuak erabiltzeko baimena 2012. urtean amaituko zaie egungo merkatariari, eta ordurako erosleentzako eta saltzaileen-entzako erosoagoa eta erakargarriagoa izango den merkatu plaza egin nahi dute.

Elgoibarko merkatu plazak 35 salmenta postuarekin ireki zituen ateak, eta eguenean 60 baserriar etortzen ziren euren produktuak saltzera. Gaur egun hamabi dendarik daukate postua merkatu plazan: hamaikak beheko solairuan eta batek lehenengoan. Eguenean bi postu gehiago irekitzen dira, eta zenbait baserriar ere etortzen dira. Urteen poderioz, merkatu plazak indarra galdu du, eta hori berreskuratzea da Udalaren nahia.

Hiru proiektu aukeran

Udalak hiru proiektu aurkeztu dizkie merkatu plazako dendariari. Salmenta



postuak handiagoak izango dira eta postu guztiak solairu berean kokatzea proposatu diete. Hasierako ideiarekin arabera, 25m²ko hamabi postu jartzea aurreikusten da. Modu horretan, dendariak dauzkaten espazio arazoak konponduko lirake, eta salmenta postuen kokapena egokituta, dendari bakoitzak bere biltegia izango luke postuaren azpian, zama-montagailu baten bidez konektatuta.

Barren Azoka elkarte

Merkatu plazako dendariak Barren Azoka elkarte sortu dute gai horren arduratzaile gisa. Bertako kideek azalduta-koaren arabera, ados daude merkatu plaza berria egiteko behararekin, baina Udalak oraindik ez omen die proiektuen kostuari buruz ezer esan. Euren esanetan, garrantzitsua da kostu ekonomikoa jakitea da, proiektuarekin aurrera edo atzera egin erabakitzeko.

Baserri auzoetako hainbat bide asfaltatuko ditu Udalak



Elgoibarko Udalak baserri auzoetako hainbat bide zatiren zorua asfaltatu, garbitu eta konpontzeko asmoa dauka. Obrarik gehienak Aiestia auzoan egingo dituzte. Bertan, Mugerza-Ua Txiki, Ziarda Txiki eta Mugerza baserrietara daramaten bide-zati hondatuak konponduko dituzte. Bestalde, Idotorbe-San Pedro auzoan, Eguen baserrira doan bidea egokituko dute. Ermuaran-Sallobente auzoan, berriz, Antxola eta Iriarte baserrietarako bidea. Azkenik, Urruzunoko Ertzil baserrira daramana ere konponduko dute. Era berean, Ermuaran-Sallobente auzoko ermitaren inguruan dagoen zorua hobetzeko hainbat lan egingo dituzte.

Jarduera hori egiteko 119.879 euro erabiliko dituzte, eta obrak hasten diren momentutik hiru hilabeteko epea izango du Asfaltos Urretxu enpresak bere lana amaitzeko.

Lekua **Altzola**



Zubibai elkarteak Altzolako hobekuntza lanean dabil buru-belarri. Oporrak amaitu dira, eta gasa Altzolaraino iristeko lanari ekin diote. Elkarteko kideen esanetan, San Antolin auzotik Mendarora pasatzen da gas instalazioa, Altzola albo batera lagata. Elkartekoen ustez, Udalak ez die gai honekin ere lagundu eta euren kabuz ekin diote lanari. Urgaska enpresarekin harremanetan jarri dira, Altzolako instalazioak egiteko ardura-dunarekin eta bizilagunekin biltzeko prestutasuna erakutsi dute. Gasa jartzeko interesa duten bizilagunen kopurua nahikoa bada, Naturgasek instalazioa egiteko baimena emango die.

Berbia **Bikain**

Elgoibarko Danobat enpresak zilarrezko Bikain ziurtagiria jaso du. Erakundeetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatu eta zertifikatzeko sistema da Bikain, Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala. Enpresaren eguneroko jardueran eragiten duten esparruetan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa ebaluatu ondoren, guztira 500-549 puntu arteko balorazioa jaso du Danobatek, Zilarrezko Bikain alegia. Urte asko daramatza Danobatek lan munduan euskara sustatu eta indartzeko lanetan, eta bide beretik jarraitzeko asmoa dauka.

Irudia **Merkatariak Plaza Handira**

Txankakua Merkatarik elkartearen feria izango da bihar, zapatua, Plaza Handian. Dendariek euren produktuak jarriko dituzte salgai. Horrez gain, umeentzako puzgarriak, txu-txu trenak, jolasak eta taberna ere izango dira. Eguerdian, 600 euro zozketatuko dituzte, sei erosketa txeketan. 13:30ean egingo da zozketa, eta sarituak Plaza Handian egon beharko du une horretan bertan. 11:00etatik aurrera, Plaza Handiak merkatu itxura hartuko du.



Lodosara irteera

Zaharren Egoitzak antolatuta, Lodosara egingo dute irteera herriko jubilatuek urriaren 1ean. Piper kontserben lantegi bat bisitatuko dute lehenengo, ondoren herriko parrokia eta, azkenik, Valdelares bodega. Eguerdian bazkaria egingo dute. Interesatuek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta egoitzan bertan eman dezakete izena.

San Antolin jaietako zozketa

San Antolin jaietan janari eta edariz beteriko karretila zozketatu zuten, eta auzoko Anton Mari Etxeberria izan da irabazlea. Zorionak!



1948koen kinto bazkaria

Bazkaria egingo dute 1948an jaiotakoek, bihar, zapatua Sigma jatetxean. 12:30ean elkartuko dira Plaza Handian eta argazkia atera ondoren, pintxoak banatuko dituzte. Bazkaria 14:30ean izango da.

Merkatu plazako zozketa

Hilabete honetan Elisabeth Urbietak eta Feli Esnaola izan dira Merkatu Plazako zozketan sarituak. 60 euroko erosketa txeke bana jaso dute. Zorionak!



Gure berbak

Aditza (26): Subjuntibua I

Gaurkuan, uda aurrekuari helduz ekingo gara, aditzari. Subjuntiboko formeri, hain zuzen.

Ez da subjuntibua gure ahotan asko darabilgun forma bat, baiña tira, horrela izaten dira hizkuntzen gorabeherak: egitura errezaguak, ekonomikuaguak izaten dira askotan garaille, eta kasu honetan ere ematen dau aditzaren beste forma batzuk nagusitu dirala subjuntibuaren gaiñetik, helburu-erabilleria dogunian behintzat: aditzaren forma jokatugabiak, hain zuzen (hurrengorako kontu hau).

Hona, hasteko, subjuntibuaren adibide batzuk:

- *Bueno, ez deixogun amenazu gehixegi eman koittauari, ehun urte jaukaz ixa ta.*
- *Halakotxe toki bat erosi, garajia urrian izan deixela, eta auto bat. Gero, ibili, batera ta bestera.*
- *Imajiñarixia zer dan? Ba, guardixia egittia edo, guardixa moruan. Ba, eztaixala iñor sartu kuartelera.*
- *Ibili zan arrankau nahixan automobilla, baiña nik kendu nion pieza bat iñok erabilli ez zeixan, pieza bat txispia ematen dabana.*
- *Oiñ egin daban eurixa ere, ba mesederakua da patatiantzako ta. Asko ez daixela egiñ. Oin komeni da egualdixa garbitzia, garbi egon daila, osasunerako ta.*
- *Guri, guri etxaku geratzen astirik, baiña behintzat ondoren datozenak ere, ba eutsi deixela hamengo hizkeriari.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1965

Aste honetako erretratuak Jesus Hoyosek laga digu. 1965. urteko San Bartolome jaietan ateratako argazkia da, Txiki Egunean. Sokamuturraren ondoren atara zuten erretratuak, San Bartolome parrokiako atarian. Ikusten den bezala, garbi-garbi daude oraindik, eta, antza denez, garai hartan ez zegoen ardoa botatzeko ohiturarik: mahatsa elkarri botatzen zioten orduan. Koadrila hori umore onez eta alai ageri da argazkian. Ikus dezagun zein diren:

Goiko ilaran (oso nahastuak daude eta denak ez ditugu ezagutzen), hauek dira batzuk: Antonia Roa, Mila Arruti, Calleja, Feli Fernandez, M^a Luisa Leizabe (+), Judas Tadeo, Mila Ondarza, Fausto Morgado.

Bigarren ilaran: Rakel Ondarza, Juan Anbrosio Lopez, Paki Martinez, Angelica Varona, M^a Loli Gurrutxaga, Montxo Rogel.

Behaan: Jesus Hoyos, Mertxe Ondarza, "Gallego", Fausto Fernandez eta Luis Morgado.



ESKERTZA



2008ko abuztuaren 15ean hil zen *Francisco Fidalgo Vida* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92
www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

ARNOKO TIGREA ETA ROBIN HOOD

Robin Hood bat bazen Mendaro aldean: Jaun Beltz bandidua. Hori ez da Arnok gorde izan duen sekretu bakarra, mito eta kondairez gain oso mendikate aberatsa delako. XVIII. mendeko dokumentu zaharretan, esaterako, hango “tigrea” ehizatu zutela azaltzen da. Hainbat kontu ezezagun bezain harrigarri eman dituzte argitara Alain Ulaziak, Aitor Basurtok, Paula Herasek eta Ibai Portuk “Arno, piztiak eta bandiduak” izeneko liburuan.

Oier Narbaiza



Egileen karikaturak: Aitor Basurto, Ibai Portu, Alain Ulazia eta Paula Heras.

Jaun Beltz inglesa balitz, Arno Sherwood izango litzateke, eta Jaun Beltz, Robin Hood”, uste du Alain Ulaziak. Arnoko Jaun Beltz edo Txomin Beltz bandiduari buruzko mitoak aztertu eta ipuina osatu zuen orain dela hiru urte. Fikziozko narrazio hori osatzeko, ahozko tradizioak emandako beste mito batzuk eta hainbat erreferentzia historiko erabili zituen Alaine.

“Belarrijana” gero etorri zen: Paula Herasi marrazkiak egiteko eskatu zion, eta marrazkilariak oso ilustrazio txukunak egin zizkion. Horrez gain, Ibai Portu injinieru agronomoari Arnoko fauna eta flora-ri buruzko sarrera idazteko erregutu zion. Azkenik, Aitor Basurto antropologia ikasleak ipuinari sarrera historikoa egin dio.

Norbaitek ez zuen espero, baina azkenean laukoteak lortu du “Arno, piztiak eta bandiduak” liburua argitara ematea. 900 ale kaleratu dituzte eta lana bihar

bertan aurkeztuko dute Mendaroko udal-letzeko Arno aretoan, 12.00etan. Elgoibarraren AEK arduratuko da salmentaz eta Mendaron Motxaila elkarte.

Balio natural handia

Liburuak bi zati dauzka. Lehenengoan Ibai Portuk Arno Mendiari buruzko hainbat txoko eta sekretu argitzen ditu. Izan ere, Arno Mendikatea bitxikeriaz jositako parajea da, balio natural handikoa. Porturen iritiz, klima atlantiarreko “irla mediterraniarra” da, berezko arte basoak daude-eta. Ustiapen nagusia ikazkinena izan denez, oihana bere horretan mantendu

da. Ondorioz, hainbat pizti bereziren bizilekua izan da Arno: lephoriak esaterako.

Horrez gain, dokumentu zaharren arabera, 1762. urteko martxoan, Olatzeko Aritza baserriko Ramon Susteta ehiztariak “tigre” bat tiroz hiltzea lortu zuen han inguruan. Dokumentuko deskribapenei esker, eta gaur egungo jakintzari esker, ezagun da katamotz europarra zela (lynx lynx), euskal kostaldeko azkenetakoa.

Bandidu sozialak

Piztiei ez ezik, bandiduei ere eman zien Arnok babeslekua. Horren inguruko ipuina jasotzen du liburuaren bigarren zatia. Izan

“Arno, piztiak eta bandiduak” liburua bihar, zapatua, aurkeztuko dute Mendaron



AMEIKUTZ

“Bidegururutze inportantea zen, eta hargatik makina bat lapurretaren lekuko. Berriatua, Ondarroa, Mutriku, Olatz, Astigarribia, Mendaro, Elgoibar, Markina edo Arratera joan ahal izateko pasabide ekidinezina zen garai hartan. Oraindik bertan dago, antzinatek mugigaitz, gurutze bikoitz bat zizelkatua duen harri misteriozua, bidegurutzea adieraztearen ala bandidaiak eragindako heriotzaren bategatik, ez da jakina”.

ANTONIO DE ZABALA

Jokin Urain presoak Antonio de Zabala mendarorari buruz argitaratzen duen nobelan ere oinarritu da Alain Ulazia. Antonio de Zabala Lasalde-Eder baserrikoa, Amerika aldera joan zen. Espainiako Armadan izena eman eta Peru aldean, Armadako burua izan zen jibaroen erresistentziaren kontra. Azkenean Caballero de la Orden de Santiago izendatu zuten. Bueltan baserria berreraiki eta armari handia jarri zion. Zabalak, alargundu ondoren, neska-me bat ekarri zuen Ameriketatik: Uherba jibaroa. Esamesak hasi ziren, eta prelatuak esku hartu zuen. Neskame hori kanporatu egin zuten Gipuzkoatik, gari zaku batekin, Arnoatik Bizkai aldera. Informazio guzti hori artxiboetan erregistratuta dago.

MOTXAILAK

Bandiduei buruzko informazio gutxi heldu da gaurko belaunaldiengana. Apurkeka handia izan da. Hala ere, oraindik esaten da Mendarorak motxailak direla. Izan ere, bandidajerako leku aproposa zen.

ere, 1766an nekazarien matxinada izan zen Gipuzkoan, elikagai batzuen prezio igoera zela-eta. Matxinatuen kontra “kristoren garbiketa egin zuten”, dio Alainei. “Galdu eta gero, Matxinadan fitxatuta gelditu zirenak ezin izan ziren etxera bueltatu, eta mendian gelditu ziren. Bandidujea asko igo zen. Bandidu koadrillak sortu ziren. Ez dakigu, baina historikoki hori izan daiteke Jaun Beltzen garaia”, bere esanetan.

Bandidu sozialen mitoak mundu guztian daude hedatuta. “Bandidua soziala da. Bandidu taldeek ingurunea ondo eza gutzen dute, sarea eginda. Bandidu sozialak baserriarekin eta herriarekin ez baziren egon harremanetan, ez zuen iraungo hainbeste denbora. Robin Hoodena moduan, mundu guztian dago bandidu sozialen mitoak: Italian, Andaluzian eta Euskal Herrian (Bizkaiko Patakon eta Nafarroako Bardeetako beste bat)”, dio Alainei.

Ipuinean beste kondaira batzuen aipamena ere agertzen da, lurperatuta egi dagoen urrezko kanpaiarena, besteak beste. Hala ere, Alainei hainbat erreferentzia historiko ere jaso ditu.

Era horretan, Alainen ipuinean fikziozko pertsonaia batzuk agertzen badira ere, ahozko tradizioan edota agiri historikoetan agertzen diren erreferentzia nahasten dira, Arnoko basoak leku misteriozua eta, aldi berean, erakargarri bihurtuz.

Arnopeko udalen laguntza

Liburua argitaratu emateko, Arnopeko udalen laguntza lortu du taldeak. Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mendaroko udalek diruz lagundu dute argitalpena. Finantziarioa lortzeko orduan Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Imanol Larrañagaren laguntza ezinbestekoa izan dela nabarmendu du Alain Ulaziak.

Udal Euskaltegian eta AEKn izena emateko epea irekita dago

Goizez, arratsaldez eta gauez izango dira ikastaroak



Jon Peli Uriguen euskara zinegotzia eta Udal euskaltegiko langileak.

Elgoibarko bi euskaltegiek irekita daukate euskara ikastaroetan izena emateko epea. Udal Euskaltegian izena emateko azken eguna irailaren 26a izango da. Ohiko euskalduntze eta alfabetatze ikastaroez gain, aurten HABEKO 4. mailako ikastaroa eskainiko dute, Osakidetza eta IVAPekoarekin partekatuz. Ikastaroak goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara bitartean eskainiko dira. Informazio gehiago 943 742 731 telefonoan.

AEKn izenematea

AEK euskaltegian, bestalde, irailaren 24an amaituko da izena emateko epea. Aurreko urteetan bezala, hiru adarretan banatu dituzte ikastaroak: hasiberrientzako, tituluren bat behar dutenentzako (Osakidetza, EGA, irakaskuntza...) eta, azkenik, etorkin, merkatari edota gurasoentzako. AEKn ere, goizez, arratsaldez eta gauez eskainiko dituzte eskolak. Informazio gehiago 943 741 332 telefonoan.

Datorren urteko egutegirako argazki lehiaketa

Elgoibarko Udalak, Ongarri argazki elkartearekin batera, 2009ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du, "Elgoibar" lemapean. Hamabi argazki onenak sarituko dira, eta irabazle bakoitzak 50 euro jasoko ditu. Lanak aukeratzeko epea urriaren 1ean amaituko da. Informazio gehiago: 943 744 366 telefonoan edo www.elgoibar.org helbidean.

Altzariak zaharberritzeko ikastaroa

Eskuz arte tailerrak altzariak zaharberritu eta birziklatzeko ikastaroa eskainiko du urriaren 2tik aurrera. Eskolak martitze eta eguenetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago, 678 840 451 (Mertxe) edo 615 764 337 (Nieves) telefonoetan.

Marrazketa artistikoa

Egur Arte tailerrak, marrazketa artistiko ikastaroa eskainiko du urriaren 1etik 28ra. Astelehenetik eguenera izango dira klaseak, 18:30etik 20:30era. Interesatuak Egur Arte tailerrak Plaza Txikian duen egoitzan eman dezakete izena.



LEKU ALDAKETA!

**ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK.**

San Bartolome 28
Tel.: 680 724 060

Aitor Gisasolak antzeztutako film laburra emango dute Zinemaldian



Aitor Gisasolak "El tiempo prestado" film laburrean hartu du parte, eta bihar, zapatua, aurre-es-trenaldia izango da Donostiako Zinemaldiaren baitan. Elgoibarko aktorearen esanetan, gonbidapen bidez bakarrik joan daiteke ikustera, eta kasu honetan film laburra egiten parte hartu dutenak eta zinemaldietan ibiltzen den jende aditua bakarrik dago gonbidatua.

Familiarteko drama da filmaren generoa. Adineko aitita bat semearen etxera joan beharrean dago, erori eta mokorrean kolpea hartu duelako. Marta, bere biloba, oporretan dago oraindik. Aitor Gisasolak Martaren anaiaren papera egiten du. Filmak hamasei minutuko iraupena du.

David Gonzalez Rudiez izan da zuzendaria. Grabaketa lanak 2007an egin zituzten Donostiako Tabacalera eraiki-

nean. 35 milimetroko formatuan grabatu zuten film laburra, aitataren errealitate grisa hobeto islatzen duelako. Argazki zuzendaria Javier Agirre Erauso ezaguna izan da, eta antzezle lanetan ere, euskal zinegintzako aktore ezagunak aritu dira: Jose Ramon Argoitia, Felix Arkarazo eta Miriam Martin.

Makina bat proiektu

Aitor Gisasola Keler garagardoaren iragarkian ikusi genuen telebistan. Aurrerantzean Taupada Antzerki taldean jarraituko du, eta antzerki musikalaren munduan barneratzea gustatuko litzaiokeela esan du. Hil eta gero zer ote dagoen azaltzen ahaleginduko diren film labur batean hartuko du parte laster, Donostiako K6 Gestion Cultural enpresarekin, eta museoetan ikusi ahal izango da lan hori.

Emilia Nogalesen margo erakusketa Kultur Etxean

Emilia Nogalesek "zuretzat" margo erakusketa inaguruatuko du gaur iluntzean (19:00) Kultur Etxean. Erakusketa urriaren 5era arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Zeramika erakustaldia

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, zeramika erakustaldi partehartzailea izango da domekan, iralaren 21ean, Altzolako frontoian. Angel Gil Cuevas eskultorea izango da erakustaldiaren arduraduna. Besteak beste, zeramikari buruzko jakingarriak, ume eta nagusientzako buztin tailerak, bere artelanen erakusketa eta tornua erabiltzeko aukera izango dira. Eguerdiko 12:00etan hasiko da erakustaldia.

Udal Musika banda

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren domekan, irailak 21, Herriko Antzokian. Kontzertua eguerdiko 12:30ean hasiko da, eta ondorengo abes- tiak eskainiko dituzte:

1. CAMINO DE ROSAS
2. COPPELIA
3. THE GODFATHER
4. AMAPOLA
5. ANTONIN'S NEW WORLD

II.URTEURRENA



2006ko irailaren 22an, 42 urte zituela, hil zen *Idoia Leniz Azkarate*.

"Denborak samina arintzen omen du, baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko".

Zure lagunak



VENERANDO CID

Motor kontzentrazioaren antolatzailea

Venerando Cid motorzale amorratua da. Motorren bigarren kontzentrazioko antolakuntza lanetan jardun du, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu gupil gaineko zitara. Skull Riders taldeko kidea da, eta domekero irteten dira motorrean. Datorren domekan, irailak 21, gasolina eta motor zarata izango dira protagonista Plaza Handian.



“Eguraldi ona bada,
400 motor inguru etorriko dira”



Goian, Venerando eta bere emaztea. Behean, Skull Riders taldea Madalako parkean eta iazko kontzentrazioko argazki bat.

Motorren bigarren kontzentrazioa antolatu duzue. Elgoibarren badago motorrenganako zaletasunik?

Bai, gu domekero irteten gara motorrean ibiltzera, euria ez bada-gu behintzat. Elgoibar, Eibar eta Ermuko hogeit hamar lagun inguru elkartzen gara, emazte eta guzti! Emakume gehienak atzean joaten dira, baina badira euren motorra daukaten neskek ere. Skull Riders izena dauka gure taldeak, eta hainbat herritako kontzentrazioetan hartzen dugu parte. Jende oso desberdina dago taldean: gazteenak hogeit hamar urte inguru dauzka; eta zaharrenak, 60. Miguel da taldeko beteranoena, elgoibartarra da, eta ezkon bidaia motorrean egin zuen.

Aspalditik datorkizue, beraz, motorrean ibiltzeko zaletasuna...

Bai, gaztetan hasi ginen motorrean ibiltzen. Nire emaztea azkoitiarra da, eta Azkarateko bide zaharretik joaten nintzen bere bila. Guardia Zibilek isun bat baino gehiago jarri izan zidaten! Orain Harley Davison motorra daukat, nire hirugarren motorra da. Bi urte dauzka, eta 30.000 kilometro ditu dagoeneko! Autoa ez dut apenas erabiltzen, herrian egiten dut lan eta ez daukat beharrik. Oporretan eta asteburuetan motorrean ibiltzen naiz.

Zaletasun arriskutsua dela diote askok. Zer deritzozu?

Arriskutsua da, bai. Motorrean kontu handiz ibili behar da, eta argi dago euria egiten duenean ezin dela motorrean ibili. Edozein deskuido garesti ordaintzen da. Nik suertea daukat, ez dut inoiz istripurik izan, baina lagun bat galdu nuen motor istripuan. Gu lasai ibiltzen gara eta ez gara kompetitzeko irteten. Paisaiaz gozatzea da gure helburu bakarra. Motorrak askatasun handia eskaintzen dizu, eta edozein lekutara joan zaitezke, non aprakaturiko duzun pentsatu gabe.

Zer ikusiko dugu motorren kontzentrazioan?

Asteburuko ekitaldia Frantziako motorzale batzuen erakustaldia-rekin hasiko da. Ikusgarria izango da, benetan, eta ez da batere arriskutsua, jendea lasai joan dadila ikustera. Domekan Plaza Handian bilduko gara motorzale guztiak. Ondoren 92 kilometroko ibilbidea egingo dugu, eta eguerdian bazkaria izango da Sig-mako aparkalekuan. Zaila da jakitea zenbat jende etorriko den, baina eguraldiak laguntzen badu egun handia izango da, 400 motorzale inguru etorriko direla esango nuke. Herritarrak animatu nahi ditut, ez da inor damutuko.

Sekula baino erabiltzaile gehiago izan ditu Mintxetako igerilekuak aurten

Guztira, 34.342 erabiltzaile izan dira; iaz 15.000

Domekan, iralaren 14an, itxi zuten Mintxetako udako denboraldia, eta Kirol Patronatuak emandako datuen arabera, inoiz baino erabiltzaile gehiago izan dira aurten: 34.342 guztira. Kopuru horretatik, erabiltzaile gehienak Udal Kirol Patronatuko abonatuak izan dira. Hala ere, 4.006 erabiltzailek ordaindu dute eguneko sarrera, eta 1.713 ume etorri dira aisialdiko hainbat talderekin (Elgoibar, Soraluze, Eibar, Mendaro eta Debatik), Kirol Patronatuaren arabera. Bestalde, erabiltzaile gehien ibili zen eguna uztailaren 10a izan zen, 1.810 bisitarekin.



Datu onak

Kirol Patronatuko arduradunak pozik daude aurtengo denboraldiko datuekin, batez ere uda hezea izan dela kontutan izanik. Iazko datuekin alderatuta, asko

hazi da erabiltzaile kopurua, eta aurreko urtekoetan lortutako emaitzak ere hobetu dira. 2007an, 15.000 erabiltzaile izan ziren aire libreko igerilekuetan; 2006an, 29.000; eta 2005ean, 32.000.


Denboraldi osorako tenis ikastaroak antolatu ditu 40-15 elkarteak



Udal Kirol Patronatuak eta 40-15 tenis elkarteak 2008/09 denboraldirako hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, martitzen eta egunetan Mintxetako tenis pista erabiltzeko eskubidea izango du elkarteak, eta gainontzeko egunetan IMHkoa. Tenis elkarteak denboraldi osorako ikastaroak prestatu ditu, bost urtetik gorakoentzat. Adinaren eta norberaren mailaren arabera, hiru talde bereiztuko dira: hasiberriak, maila ertainekoak eta aurreratuak. Irakasleak Ander Oñederra eta Jonathan Taborcia (Espainiako entrenatzailea) izango dira. Irailaren 24an mailaketa probak egingo dituzte taldeak osatzeko. Parte hartu nahi dutenek 637 990 159 edo 670 665 797 telefonoetara deitu edo Kiroldegian eman dezakete izena. Ikastaroetan parte hartzeko 36 euro ordaindu beharko dira hilean, eta aldagelak eta dutxak erabiltzeko aukera izango da.

Andoni Iriondo motorista Jaramako Race Kopan

Jaramako zirkuituan (Madril) egin den Race Kopan parte hartu du estreinakoz Andoni Iriondo motorista mendarorak, eta Kopa osatzen duten lau lasterketetan lortu ditu puntuak. Ez zuen akatsik egin, eta lasterketa bakoitzean aurreko denbora hobetzea lortu zuen. Andoni gustura dago urte honetan Jaramako asfaltoan bizi izandakoarekin eta ikasitakoarekin.



Eskubaloi entrenatzaile titulua lortzeko ikastaroa

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioarekin elkarlanean, Sanlo ETKt eskubaloiko entrenatzaile titulua lortzeko ikastaroa eskainiko du irailaren 20an eta 27an. Klase teorikoak Kultur Etxean emango dituzte, eta Olaizaga kiroldegian klase praktikoak. Guztira 16 orduko iraupena izango du ikastaroak, eta bertan entrenatzaile izateko eskatzen den titulazio baxuena, PDJ titulua, eskuratzeko oinarriko ezagutzak eskainiko dira. Interesatuak 35 euro ordaindu beharko dituzte. Izena eman edo informazio gehiago lortzeko 605 775 449 telefonora deitu daiteke.

Emakumeentzako defentsa pertsonal ikastaroa

Wingsun eskolak hamabost urtetik gorako emakumeentzako defentsa pertsonal ikastaroa eskainiko du urrian. Ohiko erasoan aurrean hartu beharreko jarrera pertsonal eta psikologikoa landuko dituzte batez ere. Interesatuak Olaizaga kiroldegian jaso dezakete informazio gehiago.

LANA

ESKAERA

- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **680 456 935**
- Mutila obretan, garbiketa lanetan edo biltegian lan egiteko prest. ☎ **660 213 652**
- Neska lanerako prest. ☎ **638 520 765**
- Neska lanerako prest. ☎ **659 813 248**
- Emakumea etxeko lanak egin eta garbiketarako prest. Arratsalde. ☎ **943 74 32 51**
- Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest. ☎ **639 505 373**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Umeak zaintzen esperientzia daukat. ☎ **943 53 16 08**
- Neska gaztea ostalaritzan edo umeak zainduz lan egiteko prest. ☎ **659 320 774**
- Mutila lanerako prest. Banatzaile lanetan esperientzia. ☎ **638 344 377**
- Mutila lanerako prest. Obretan eta ostalaritzan esperientzia. ☎ **689 144 723**
- Emakumezko arduratsua gaixoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 03 65**
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest. ☎ **660 289 049**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Erreferentzia eta papelenekin. ☎ **686 521 598**
- LH, DBH, Batxilergo eta zikloetako klase partikularrak ematen dira. ☎ **653 717 972**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **680 441 505**
- Emakume arduratsua gauaz nagusiak zaintzeko prest. ☎ **650 034 445**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **659 639 296**
- Neska gaztea arratsalde umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **676 876 408**

- Neska sukaldari laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **797 813 719**
- Mutila eskaintzen da konpainia egiteko. ☎ **689 144 723 / 663 159 751**
- Mutila goizetan, gauetan edo asteburuetan edozein lan egiteko prest. ☎ **630 252 859**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako prest. ☎ **638 338 816**
- Gizon arduratsua eta langile fina edozein lan egiteko prest. Edozein orduetan deitu. ☎ **627 276 995**
- Neska lan egiteko prest (esperientzia garbiketa lanetan eta agureak zaintzen) ☎ **616 465 940**
- Neska lan egiteko gogo handiarekin. Kotxea eta gida baimena ditut. ☎ **669 154 143**

ESKAINZA

- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. ☎ **652 76 18 81**
- Jatetxerako sukaldaria eta kamareroa behar dira. ☎ **943 74 31 96**
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **625 467 634**
- Zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna batean zapatuetan lan egiteko. ☎ **679 276 164**
- Umea zaintzeko neska edo emakumea behar da. Goizez, orduka lan egiteko. Hilaren 13an lan eskeintzara deitu zutenak, mesedez deitu berriro. Telefonoan izandako arazo baten ondorioz dei guztiak galdu baitira. ☎ **647 890 377**
- Zerbitzaria behar da. ☎ **669 644 632**

ETXEBIZITZA

SALMENTA

- Buhardila salgai Altzolan. 50.000 euro. ☎ **943 74 34 92 / 625 708 042**
- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, igogailua, balkoiak, oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. ☎ **669 167 457**

ALOKAIRUA

- Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **696 246 962**
- Etxea alokatuko nuke Elgoibarren. Premiazkoa. ☎ **664 616 681**
- Etxea alokatzen da Granadan, Albaicin auzoan. Informazio gehiago: www.casasolea.com
- Etxebizitza salgai San Antolinen. Dena kanpora begira baita komuna ere. Argitsua eta eguzkitsua. Gas naturala sartuta. Trasteroduna. Etxe osoa berziturik: komuna, sukaldea, ateak, leihoak... ☎ **655 722 681**

MOTORRA


- Hyundai Accent autoa salgai. 1999ko urrikoa, 113.000 km. Egoera onean. 1.500 euro. ☎ **943 53 12 77**

GARAJEAK

- Bi pisuko garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 23 44**
- Garajea alokatzen da San Roke 5ean. ☎ **943 74 14 36**

BESTELAKOAK

- Altzariak, etxeko tresna elektrikoak, gortinak eta ohe arropak behar dira. ☎ **676 444 171**



BEKAK

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKETAK

Unibertsitate mailakoak ez diren ikasleentzat Eusko Jaurlaritzaren 2008/2009 ikasturterako laguntzak Epea: urriak 15

LEHIAKETA

GOMENDATZEN DIZUT

Gipuzkoako zenbait Gazte Informazio Guneak antolatutako lehiaketa. Oporretan joateko lekuei buruzko gomendioak egin behar dira: hiriak, ostatuak, garraioak edota beste edozein informazio. Epea: irailak 30.

LANA

INGENIARI TEKNIKOAK

Donostiako Udalaren obra publikoetarako, 8 ingeniari tekniko plaza betetzeko deialdia. Epea: urriak 2.

ADMINISTRARIARIK

Donostiako Udalean 69 administrari lanpostu betetzeko deialdia. Epea: urriak 2.

UDALTZAINAK

Lasarte-Oriako Udalean sei udaltzain-lanpostu betetzeko oposizioa. Epea: urriak 2.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Asteleheneetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburrak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Irati**, gure etxeko txikitxoari bere seigaren urtebetetzean. Patxoak etxekoan partez.



• Zazpi kandela piztu dituela gure tximeleta zaleak. Zorionak, **Hasier!**



• Zorionak, **Goizeder**, sei urte egingo dituzulako. Ahizpa Eider eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Ane**, gaur bi urtetxo egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Noraren partez.



• Zorionak, **Maialen**, lau urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoan partez.




• Zorionak, **Petri**, zure urtebetetze egunean. Muxu asko zure seme, biloba eta senarraren partez.



• Zorionak, **Aitor eta Jon**, irailaren 17an hiru urte bete zenituztelako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Berñat eta Maialen**, joan zen larunbatean hiru eta urte bat egin zenituztelako, hurrenez hurren. Guraso, osaba-izeba eta aitona-amonen partez.



• Heldu da azkenean zuen eguna! Oso ondo pasa eta **zorionak bikotet!** Familiakoan eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Gemma eta Maialen!** Muxu asko amamaren partez.



• Happy birthday, **amatxo Nekane, amama Lolita eta Mikeltxo!** Egun oso ona pasa! Familiakoan eta, bereziki, Oihaneren partez. Zorionak!



• Zorionak, **Mikel, aitaboa eta aitaboa Santil!** Zuen urtebetetze egunean muxu handi bana etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Miren**, gaur sei urte egin dituzulako. Etxekoan eta bereziki, Aitor eta Ainhoaren partez.



• Zorionak **etxeko gizon-txoari**, bereziki Unaxen partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Olatz**, bihar hiru urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoan partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu **BARRE**neko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behean
Pnl. Glaso - Glasago kalea, 18 - 25 eta 26 modulos
Tel. 943 749 570

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluek ezarpenak
Lakadura: egur, aluminio, PVC,
Pintura onakara

GRUPO
ROYALMEY

LEKU ALDAKETA!

ZURE ALDE



ABOKATUAK

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Itxaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351

Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

OKINDEGIA

21 domeka BOLINTXO

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 19 Etxeberria (Errosario)
- 20 Yudego
(*Goizez Fernandez)
- 21 Fernandez
- 22 Yudego
- 23 Zabaleta
- 24 Etxeberria (Errosario)
- 25 Ibañez
- 26 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.neten



musika

21 domeka
12:30 Musika Bandaren
kontzertua

Udal Musika Bandak
kontzertua eskainiko du
Herriko Antzokian.

aisialdia

19 barixakua
17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera arteko haur eta
euren gurasoentzako ekitaldia.
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.
Plaza Handian.

20 domeka
10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta,
Arratera mendi irteera.
Irteera: Ikastolatik.

erakusketak

19 barixakua
19:00 Emilia Nogalesen
margoak

Emilia Nogalesek "zuretzat"
erakusketa inauguratuko du.
Kultur Etxean, urriaren 5era
arte.

20 zapatua
20:00 Motor erakustaldia

Team Leve Ta Roue taldeak
motor erakustaldia egingo du.
Sigmako aparkalekuan.

21 domeka
12:00 Zeramika erakusketa

Zubibai elkarteak antolatuta,
zeramika erakusketa eta
tailerra. Altzolako frontoian.

ikastaroak

20 zapatua
9:00 Eskubaloi entrenatzaile
ikastaroa

16 orduko ikastaroa izango da.
Alor teorikoa eta praktikoa
landuko dira. Goizez eta
arratsaldez izango da, bi
zapatutan. Informazio gehiago
605 775 449 telefonoan.

lehiaketak

30 martitzena
Gomendatzen dizut

Oporretan joateko lekuen
gomendioak egin behar dira.
Edozeinek hartu dezake parte,
eta nahi beste gomendio bidali
daitezke. Gomendioak
aurkezteko azken eguna
irailaren 30a da. Informazio
gehiago: 943 741 461
telefonoan edo
gib@elgoibar.org

Gure gomendioa

Motorren kontzentrazioa

Irailak 21, domeka, Plaza Handian

Motorzaleek datorren domekan, irailak 21, izango dute zita Elgoibarko Plaza Handian. 400 motorzale inguru bilduko dira bertan, bakoitza bere motorrekin. Bestalde, Team Leve Ta Roue taldeak motor erakustaldia eskainiko du, gupil gainean gauza asko egin daitezkeela erakutsiz. Elgoibarren egingo den bigarren motor kontzentrazioa izango da.



«El baño del Papa»

20, zapatua:
19:00-22:15

«Aritmetica emocional»

19, barixakua: 22:15
21, domeka:
19:00-22:15
22, astelehena: 22:15

«Encarnacion»

23, martitzena: 22:15
25, eguena: 22:15

«Buda explotó por amor»

24, eguaztena: 22:15
26, barixakua: 22:15



19 barixakua

20:00 Manifestazioa

"Euskal Herriak askatasuna behar du" lemapean.
Antolatzailea: Elgoibarko AAM.

20 zapatua

11:00 Txankakuaren feria

Herriko dendariak Plaza Handian feria egingo dute.

21 domeka

10:00 Motorren kontzentrazioa

Plaza Handian elkartuko dira motor zaleak eta 90 kilometroko ibilaldia egingo dute. Ondoren, bazkaria Sigmako aparkalekuan. 13:30ean Team Leve Ta Roue taldeak motor erakustaldia egingo du.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Abuztuko irabazlea: **ATSEGIN UZURURIAGA**

Iraileko saria: **MASAJEA eta PEDIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Zerikasi

IKASTAROAK

Marrazki artistikoa

Norentzat: denentzat
Hizkuntza: kontsultatzeko
Hasiera data: 2008-10-01 / Bukaera data: 2008-10-28
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: plazak bete arte

Meditazioa

Norentzat: yoga apur bat dakitenentzat
Hizkuntza: gaztelerez
Hasiera data: 2008-10-06 / Bukaera data: 2009-06-22
Non: Eibar
Izenemate bukaera: plazak bete arte

Diseinua eta maketazioa

Norentzat: windows ezagutzen dutenentzat
Hizkuntza: gaztelerez
Hasiera data: 2008-10-07 / Bukaera data: 2008-11-13
Non: Eibar
Prezioa: 139 euro

Haur kantak eta jolasak

Norentzat: denentzat
Hizkuntza: euskaraz
Hasiera data: 2008-10-21 / Bukaera data: 2008-11-13
Non: Eibar
Prezioa: 139 euro

Esperientzia eskola

Norentzat: 50 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: gaztelerez
Hasiera data: 2008-10-24 / Bukaera data: 2009-05-22
Non: Eibar
Izenemate bukaera: urriak 23

Geriatria laguntzailea

Norentzat: langabetuentzat.
Emakumeek lehentasuna dute.
Hasiera data: 2008/11/10 Bukaera data: 2009/02/17
Non: Elgoibar
Izenemateko azken eguna: Plazak bete arte.

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



klik - klak

maria hernandez

Izan duzu opor osteko depresiorik?

Ez, gustura hasi naiz klasean.

Zer egin duzu udako oporretan?

Alcoceberren pasatu ditugu egun batzuk. Orain dela bederlatzi urte hasi ginen hara joaten, eta dagoeneko koadrila ere badaukat bertan. Oso ondo pasatzen dut han. San Bartolomeetarako etorri ginen.

Barajasko istripuaren ondoren, ematen dizu beldurrik hegazkina hartzeak?

Ez, auto istripuak ere asko izaten dira, eta jarraitzen dugu autoan ibiltzen.

Bidaiatzeko mediorik onena?

Autoan ibiltzen naiz, batez ere. Erosoa iruditzen zait.

Mutil batek esan dizun gauzarik politena?

Gauza horiek niretzako gordetzen ditut!

Egia da Euskal Herrian gutxi ligatzen dela?

Ez, mito bat da. Batzuk gehiago ligatzen dute, eta besteek gutxiago. Toki guztietan bezala.

Emakumeak eta gizonak berdinak dira?

Bai, denok ahal ditugu gauza berdinak egin.

Zerk ematen dizu beldurra?

Oraindik ez dut benetako beldurrik sentitu inoiz

Gogoratzen duzu negar egin zenuen azken aldia?

Bai, orain dela hilabete inguru izan zen, baina ez dizut esango zergatik.

Sekula ez duzu ahaztuko...

Alcoceberreko koadrila. Oso ondo pasatzen dut eurekin.

Zer aldatuko zenuke zure gorputzetik?

Altuera, baina ezin da. Takoiak jantzi beharko ditut!

Gizaki perfektua existitzen da?

Ez, denok daukagu akatsen bat.

Entzutea ala hitz egitea duzu nahiago?

Hitz egitea, berba asko egiten dut.

Gazte gara gazte, eta... zerekin ez zaude konforme?

Nik uste dut ondo bizi garela, momentuz ezin naiz kejavu.

Zenbat urtera arte bizitzea nahiko zenuke?

Ez dakit. Ez dut horretan pentsatzen. Egunerokotasuna bizitzen saiatzen naiz.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**GURASO BILERA
IRAILAREN 23AN,
19:00ETAN**

Ludori agurra ematera
etorri Ludotekara
irailaren 25ean

GAZTELEKUKO EKINTZAK



**WIFI GUNEA
ZURE ESKURA!**

Losintxa lehiaketa martxan da!
Losintxak bidaltzeko azken eguna, urriak 3.



2008ko SAN MIGEL JAIK

Elgoibarko Aiastia auzoan

IRAILAK 26 - Barixakua "Gazteen eguna"

- * 18:30ean Kanpai jotzea jaien hasiera adieraziz.
- * 21:30ean **GAZTE AFARIA**.
- * Gaueko 00:00etan **DISKO FESTA**.
- * Goizaldean **"STRIPTEASE"**.

IRAILAK 27 - Zapatua

- * 17:00etan **ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA**. Euskal Herriko arraza libreko finala.

ARTZAILA	TXAKURRA	PERRA	SALKAPEZA	LEHARRIDIA
JOSE ANTONIO ARRIOLA	LADRY	ALONSO	D.	BERNINA
JOSE LARRENDA	BERO	DARNU	E.	BERNINA
MIGUEL AZPUELA	BEU	OLAFSON	S.	BIPEYKA
PELAI ARRIOLA	ALAI	WATSONEN	A.	BIPEYKA
PELAI ANDRES	PELAI	ARABE	E.	BERNINA
CARLOS PINO	ENRI	ANAGUI	E.	ARABA
CARLOS PINO	BEREN	ANAGUI	E.	ARABA
			E.	ARABA
			E.	ARABA

- * 22:30etan **HARITZ** euskal dantzari taldearen erakustaldia.
- * Ondoren erromeria **KUPELA** taldearekin.
- * 01:00ak aldera **BOLO TXAPELKETA**

SARIAK:

- 1- Motoserra.
- 2- 70 euro.
- 3- 50 euro.
- 4- 25 euro.
- 5- 15 euro.
- 6- Ustekabea.
- 7- Lehenengo auzotarrentzat garaikurra.

IRAILAK 28 - Domeka

- * 11:30ean **MEZA**.
- * Ondoren **UXUE ALBERDI** eta **MIKEL OLAIZOLA** bertsolariak.
- * 12:00etan San Migelera II. Igoera korrika.
- * Ondoren **BALZOLA ANAIK** trikitalariak.
- * 17:00etan **IDI DEMAK**:
 - **Sistiaga** (Urduliz)
 - **Igeldo** (Zumarraga)
 - **Erlete** (Itziar)

SARIAK:

- 1- 900 euro, garaikurra eta mantak.
- 2- 800 euro eta garaikurra.
- 3- 700 euro eta garaikurra.

IRAILAK 29 - Astelehena

- * 11:30ean **MEZA NAGUSIA**.
- * Ondoren **ZIARDA** eta **MAÑU** bertsolariak.
- * 13:00etan pilota partidua.
- KEPA - LOIOLA**
- ATXOTEGI - LIZARRALDE**
- * Ondoren **ELUSTONDO ANAIK** trikitalariak.
- * 20:30ean **AUZOTARREN AFARIA**.
- * Ondoren **ELUSTONDO ANAIEKIN** erromeria.

Laguntzailea:



Elgoibarko
udala

Oharra:

Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dute gerta daitezkeen ezbeharren erantzunkizunik hartuko.